

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 32/2018 FORU DEKRETUA, martxoaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organoen Kontratazio Mahai Nagusi iraunkorra sortu zen, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikita, baina haren egitura organikoan sartu gabe.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Lege berriak testuinguru berri bat sortzen du kontratazio-mahaiei dagokienez. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organoei laguntza tekniko espezializatua emateko kide anitzeko organotzat jotzen du.

Hori dela eta, lege berri hau indarrean jarri ondoren, egokitu egin behar da Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Mahai Nagusiaren osaerari buruz xedatutakoa.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 14. eta 17. artikuluek eskumena ematen diote Bizkaiko Foru Aldundiari bere sailen egitura organikoa eta antolaketako barne-erregelamenduak onets ditzan.

Bestalde, foru arau beraren 60. artikulua xedatzen duenaren arabera, Foru Aldundiari dagokio, kasuan kasuko foru diputatuak proposamena eginda, sail bakoitzaren egitura organikoa eta erregelamendu organikoak onestea, Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretu bidez.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude jasota eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Halaber, dekretu honen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten egokiak egin dira.

Bestetik, foru diputatuaren eskumena da, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zuzen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k artikulua.

Horregatik, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 13ko bileran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra

Aldatu egiten da Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria, «Osaera» atalari dagokionez. Honela idatzita geratzen da:



«Osaera.—Kontratazio Mahai Nagusi iraunkorra mahaiburuak, hiru mahaikidek eta idazkari batek osatuko dute, eta, kide titularrak izendatu ez direnean, kanpoan edo gai-xorik daudenean edo, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean, ordezkatu egingo dira. Hau izango da osaera:

— *Mahaiburu titularra*: Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzuen eta Udal Harremanen zuzendariordetza nagusia.

Ordezkoa hauetako edozein izango da: Funtzio Publikoaren zuzendariorde nagusia edo Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailean kontratazioaren arloko eskumena duen zerbitzuko burua.

— *Mahaikide titularra*: kontratua sustatu duen foru saileko Zerbitzu Orokorren edo Zentralen Zerbitzuko burua.

Ordezkoa hauetako edozein izango da: kontratua sustatu duen foru saileko Zerbitzu Orokorren edo Zentralen Zerbitzuko edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.

— *Aholkularitza juridikoa ematea dagokion mahaikide titularra*: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoak: Kontratazio Zerbitzuko edozein ataletako burua.

— *Ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion mahaikide titularra*: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoak: Fiskalizazio Zerbitzuan ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion goi-mailako edozein teknikari.

— *Idazkari titularra*: aztertu beharreko gaiaren adjudikazio-espedientea izapidetzeko ardura duen Kontratazio Zerbitzuko ataletako burua.

Ordezkoak: Kontratazio Zerbitzuko beste edozein ataletako burua edo zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikari bat.

Mahaiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik, hitz egiteko eskubidea baino ez baitu izango. Mahaiaren bileretara, aztertu beharreko gaia dela eta, beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulariak joaten bada, hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako lehia-elkarrizketako prozeduretan edo berrikuntzarako elkarketa-prozeduretan, kontratazio-organoei laguntza emateko, elkarrizketaren edo berrikuntzarako elkarketaren xede den gaian kualifikazio berezia duten pertsonak parte hartuko dute. Kontratazio-organismoak izendatuko ditu pertsona horiek. Pertsona horiek mahaia osatzen duten kide guztien herena edo gehiago izango dira, eta eztabaidetan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute.»

AZKEN XEDAPENA:

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko martxoaren 13an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ